

2003ko APIRILAREN 14ko BILKURA NAGUSIA

Lizartzan, bi mila eta hiruko apirilaren hamalauan, gaueko bederatziak direnean, Alkatea: Jose Antonio Mintegi Arrate; Udalkideak: Ana Ederra Irurzun, Antton Balerdi Garmendia, Nerea Altuna Zubeldia, Lurdes Altuna Arritegi, Lontxo Goikoetxeaundia Martinez, Xabier Balerdi Urdampilleta; Idazkaria: Ana Jesus Zabala Garmendia eta beste hainbat herritar, Biltzar Nagusian bildu dira, gai hauek erabili direlarik:

1.- AURREKO AKTAREN ONARPENA:

Alkateak, aurreko saioaren aktari ezer esatekorik badagoen galdetu du, eta inork ezer esatekorik ez duenez, aho batez onartu da.

2.- A-4 AREA. AZALERA-ESKUBIDEAREN EMAKIDAREN ADJUDIKAZIOA

LIZARTZAKO UDALAREN JABETZAKO LURSAILETAN BABES OFIZIALEKO 26 ETXEBIZITZA, TRASTELEKU, ETA GARAJEAK ETA LOKALAK ERAIKITZEKO AZALERA-ESKUBIDEAREN KOSTUBIDEZKO EMAKIDA LEHIAKETA BIDEZ ERAENDUKO DUTEN BALDINTZEN PLEGUAREN ARABERA, AURKEZTUTAKO PROPOSAMENAREN ADJUDIKAZIOA

Bi mila eta hiruko apirilaren hamarrean, Kontratazio Mahaiak eginiko bilkuran, Kontratazio Organuari, Lizartzako Udalaren jabetzako lursailetan Babes Ofizialeko 26 etxebizitza, trasteleku, eta garajeak eta lokalak eraikitzeke azalera-eskubidearen kostubidezko emakida lehiaketa, SEASKA ETXEBIZITZAK, S.L.ri adjudikatzea proposatu zion baldintzak hauekin, zeintzuk, adjudikatariarekin formalizatu beharreko adjudikazio kontratuan sartu behar direlarik:

1.- Eraikinen azpikaldean, harrizko zokalo txiki bat egitea, mortea lurreraino iritxi ez dadin.

2.- Leihoak, Zubi termikoko haustura duten erakoak izan beharko dute.

Hiritaratzeari dagokionean aldiz, zonalderako onartuta dagoen Hiritaratzeko Egitasmoaren baitan burutu beharko dira lanak eta Egitasmoan aldaketari proposatu nahi balitz, Udalarekin adostu beharko dira.

Kontratazio Mahaiak eginiko proposamena aztertu ondoren, aho batez erabaki da:

- 1.- Lizitazioa baliozkoa aitortzea eta Lizartzako udalaren jabetzako lursailetan Babes Ofizialeko 26 etxebizitza, trasteleku eta garajeak eta lokalak eraikitzeazko azalera-eskubidearen kostubidezko emakida lehiaketa, SEASKA ETXEBIZITZAK S.L.ri adjudikatzea, goian aipatutako baldintzekin, zeintzuk, adjudikatariarekin formalizatu beharreko adjudikazio kontratua sartu behar dira.
- 2.- Hamar egunetako epean, kontratu adjudikazioaren ebazpena Adjudikatioari jakinaraztea, eta errekerimendua egitea, hamabost egunetako epean, behin-betiko fidantza ezarri duela kreditatzen duen agiriak aurkezteko.
- 3.- Adjudikazioaren jakinerazpena egin eta hogeita hamar eguneko epea ematea, administrazio agirian, kontratua formalizatzeraz agertzeko.
- 4.- Adjudikazioa, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratua izango da.

3.- A-4 AREA. AZALERA-ESKUBIDEAREN EMAKIDA GAUZATZEKO ALKATE-LEHENDARIARI AHALMENAK EMATEA

2003ko Otsailaren 20ko Udal Batzarrean onartutako baldintza eta terminoetan, SEASKA ETXEBIZITZAK S.L.ri eginiko adjudikazioaren arabera, Lizartzako Laguntzazko Arauetako 4. Areatan kokatutako udal titularitatea duten, eta eraikitzeazko gai diren partzelen gain, azalera eskubidea, eskritura publikoan osatu eta formalizatzeazko, Udaleko Alkate-Lehendakaria den, JOSE ANTONIO MINTEGI ARRATE Jaunari, ahalmenak ematea, proposatu da.

Proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren, bilkura bertaratu diren zazpi zinegotzien aldeko botoekin, aho batez onartua izan da.

3.- A-4 AREA- HIRIGINTZAKO PROIEKTUAREN BEHIN BETIKO ONARPENA

Udal honek, bi mila eta hiruko otsailaren hogeian eginiko Bilkura Nagusian, "Lizartzako A-4 Areako Higintza Proiektua"ri lehen onarpena eman zion.

KONTUTAN HARTUAZ.- Erabaki hori, 2003ko Martxoaren 5ko, 43. zenbakidun Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, eta 2003ko Martxoaren 13ko Gara egunkarian, hamabosteko epean, jendeaurrean egon zela, eta ez zela inola alegaziorik jaso.

TJOL.ko 54. eta Antolaketa, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoko Araudiaren 173. Artikuluen arabera, Idazkariak Txostena luzatu du.

TJOL.ko 114. eta Planeamenduko Erregelamenduaren 130 eta 131. artikuluek ikusirik, Udal Batzarrari, proposatu zaio:

ERABAKIA

- 1.- "Lizartzako A-4 Areako Higintza Proiektua"ri, behin-betiko onarpena ematea.
- 2.- Erabakia, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

"Lizartzako A-4 Areako Higintza Proiektuaren Onarpenari buruzko proposamena, aztertu eta eztabaidatu ondoren, gehiengo absolutuaren "quorum"arekin, aho batez onartua izan da.

4.- A-4 AREA. XEHETASUNEZKO ESTUDIOA

SEASKA ETXEBIZITZAK, S.L.k, Jorge Caballero Bustamente Arkitekto Jaunak idatzitako, A-4 Areako, U.A.U. 4-2 C (BR) Partzelari dagokion Xehetasunezko Estudioa aurkeztu du.

Kontutan hartuaz, aurkeztutako Estudioa, Planera egokitzen dela, eta teknikari eta juridiko txostenak aldekoak direla, Udalari, erabaki hau onartzeko proposatu zaio:

- 1.- A-4 Areako, U.A.U. 4-2 C (BR) Partzelari dagokion, SEASKA ETXEBIZITZAK S.L.k eskatuta, Jorge Caballero Bustamente Jaunak idatzitako Xehetasunezko Estudioari, lehen onarpena ematea.
- 2.- Jendaurrean jartzea, hamabost eguneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala eta Egunero Egunkarian iragarkia argitaratuaz, alegazioak jarri ahal izateko.
- 3.- Alegaziorik egoten ez bada, behin betirako onartutzat hartuko da.

Lizartzako Laguntzazko Arauetako A-4 Areako, U.A.U. 4-2 C (BR) Partzelari dagokion Xehetasunezko Estudioa, bilkura bertaratutako zazpi zinegotzien, aldeko botoekin, aho batez onartu da.

5.- PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ, LIZARTZAKO UDAL PLANGINTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENAREN IDAZKETA ESLEITZEKO LEHIAKETA ARAUTZEN DUEN BALDINTZA PARTIKULARREN PLEGUA

1.- KONTRATUAREN XEDEA

Aholkularitza eta Laguntzako kontratu honen xedea Lizartzako Udal-Plangintzako Arau Subsidiarioen berrikuspen-agiria idaztea izango da. Halaber, kontratuaren xedearen barnean sartuko dira horretarako eman behar diren txostenak, agiriak izan ditzakeen aldaketak eta Udalak xede horretarako idazketa-taldeari eska diezazkiokeen lanak, bilerak eta., guztiak ere agiria behin

betiko onartu arte edota, kasua bada, behin betiko onarpenarekin ezar daitezkeen baldintzak bete arte, testu bateginaren idazketa ere barne hartuta.

Arau Subsidiarioen berrikuspen-agiria behin betiko onartzeko, euskaraz eta gaztelaniaz idatzi beharko da eta, Udalari 6 kopia eta euskarri informatikoan dagoen ale bat emango zaizkio, dokumentu grafikoak CAD-en eta testuak eta taulak Word/Excel-en egingo dira.

Lizartzako Arau Subsidiarioen berrikuspen agiria honako puntu hauek osatuko dute:

- **Irizpideak eta Helburuak (Aurrerapena)**

Aurrerapen-agiria idazteko beharrezko informazioa izango du eta, bertan, gutxienez 1:5.000 eskalaz eginda egongo den inguru fisikoaren azterketa, memoria eta planoak sartuko dira.

- **Hasierako Onarpeneko Agiria**

Berau memoriak, plenoek eta informazio grafikoak, hirigintza-arauek eta ordenantza grafikoek nahiz programaketari dagokion atal berezi batek osatuko dute.

- **Behin-Behineko Onarpenerako Agiria**

Hasierako Onarpeneko Agirian bildu ziren agiri eta eduki berberak izango ditu, baina alegazioen azterketa eta erantzunak eta onarpeneko agirian sartuko diren erabaki berriak ere bilduko ditu.

- **Testu Bategina**

Beharrezko izanez gero, hasierako onarpenean hartzen diren erabakian testu Bategina idatziko da.

2.- KONTRATUAREN FINANTZAKETA

Kontratu honen xede den Lizartzako Udal-Plangintzako Arau Subsidiarioen Berrikuspen-agiriaren idazketa, indarrean dagoen Aurrekontu Orokorretako 1-00-00-642-432-00-01 sailaren kontura egingo da.

3.- ESLEIPENAREN PREZIOAREN ORDAINKETA

Prezioaren ordainketa horrela egingo da:

- Prezioaren %25, aurrerapen-agiria aurkezten denean.
- %50, Udalak agiria behin-behineko izaeraz onartzen duenean.
- Gainerakoa, %25, Diputazioak Arau Subsidiarioak behin betiko onartzen dituztenean eta honek egindako eskaerak betetzen direnean, hau da, idazketa-taldearen lana guztiz amaitzen denean.

4.- KONTRATUAREN IRAUPENA

Kontratuaren xede den Arau Subsidiarioen berrikuspen-agiria dagokion organoak behin betiko onartzen duen arte iraungo du kontratuak. Ez da berau gauzatzeko epe zehatzik ezarri, lehiaketan kontuan hartuko bada ere.

5.- KONTRATUA BETETZEA

Kontratuaren xedea honako egutegi honen arabera beteko da:

- Aurrerapen-agiria idazteko gehienez ere 2 hilabeteko epea izango da, esleipenaren administrazio-kontratu hau sinatzen denetik hasita.
- Beharrezko diren txostenak 15 eguneko epean bideratuko ditu idazketa-taldeak, eskaera egiten den egunetik hasita.

- Agiria aztertu ondoren aurkezten diren alegazioei, iradokizunei eta gainerakoei erantzuna ematen zaienean, idazketa-taldeak agiria gehienez ere BI HILABETEKO epean aurkeztu beharko du.

6.- ENKANTEAREN OINARRIA EDO MOTA

Ez da zehaztu, baina hau ere kontuan hartuko da enkantean. Eskaintza ekonomikoari dagokionez, zenbateko bakar eta global baten bidez adieraziko da eta BEZ barne hartuta dagoela ulertuko da.

7.- KONTRATATZEKO GAITASUNA

Kontratatzeko gaitasuna izango dutenak hauexek dira: Espainiako nahiz atzerriko pertsona natural edo juridikoak, jarduteko gaitasun betea badute eta dagokien sailkapena edota, halakorik ezenean, kaudimen ekonomiko, profesional eta teknikoak aurkezten badute, Herri Administrazioen Kontratuen Legeko 19. artikulua araberak; halaber, ezin izango dira egon kontratatzeke ezintasuna adierazten duten 20. artikuluko egoeraren batean.

Administrazioak, xede horretarako aldi baterako osatzen diren enpresa-elkarteak kontratatu ahal izango ditu (esleipena egin arte ez da beharrezkoa izango hauek Eskritura Publiko bidez formalizatzea), eta hauek Administrazioaren aurrean elkartuta erantzungo dute eta ordezkari edo ahaldun bat izendatuko da.

Enpresa horien helburu nagusia kontratuaren xedearekin zuzen-zuzeneko lotura duten jarduerak egitea izango da eta beren antolamenduan kontratua behar bezala egikaritzeko giza baliabide eta baliabide material nahikoa eskaini beharko dituzte.

8.- BEHIN-BEHINEKO BERMEA

Ez da halakorik eskatuko.

9.- BEHIN BETIKO BERMEA

Behin betiko bermea kontratuaren prezioaren %4koa izango da eta Herri Administrazioen Kontratuen Legeko 37. artikuluan aurreikusten diren moduetakoren batean osatuko da.

Behin betiko bermea, lehiaketaren esleipena jakinarazten den egunaren biharamunetik hasita 15 asteguneko epean egiaztatu beharko da. Esleipendunari egotz dakioken arrazoi batengatik hala egiten ez bada, kontratua iraungi egingo da.

10.- ADMINISTRAZIO BALDINTZA PARTIKULARREN PLEGUA ETA PROPOSAMENAK AURKEZTEKO IRAGARKIA BATERA EGITEA

781/86 Errege Dekretu Legegileko 122. artikuluko 2. paragrafoan ageri denari jarraituz, Administrazio Baldintza Partikularren Plegua eta (enkanteko) proposamenak aurkezteko iragarkia egintza bakar baten bidez batera azalduko dira eta pleguaren aurkako erreklamazioakegin nahi badira, iragarkia argitaratu den egunaren biharamunetik hasita hurrengo 8 astegunetan egin beharko dira.

Epe horretan pleguaren aurka erreklamazioak egiten badira, lehiaketa eta proposamenak aurkezteko epea bertan behera utziko dira, eta haiei ebazpena ematen zaien hurrengo egunetik ekingo zaie berriro.

11.- PROPOSAMENEN AURKEZPENEA

Aurkezteko tokia eta epea, betebeharrak eta agiriak.:

Proposamenak Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira eta eskura emango dira astelehenetik ostiralera, 8,00etatik 14,00etara, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo 26 egun naturaletan.

Postaz ere bidali ahal izango dira proposamenak, baina kasu horretan interesatuak, dagokion egiaztagiraren bidez, posta-bulegoan bidalketa zein

egunetan egin duen egiaztatu behar du eta, gainera, egun berean kontratazio-organoari proposamena bidali duela adierazi behar dio Fax, Telex edo telegramaren bidez. Baldintza horiek betetzen ez badira eta proposamena enkantearen iragarkian zehaztutako epeetik kanpo jasotzen bada, ez da onartuko.

Dena dela, proposamenak aurkezteko epea amaitzen denetik 10 egun igaro ondoren ez da postaz bidalitako proposamen gehiago onartuko.

Proposamenak hiru kartazal itxitan aurkeztuko dira eta 1. KARTAZALA, 2. KARTAZALA eta 3. KARTAZALA izendatuko dira. Kartazal bakoitzean barnean zer duen zehaztuko da aurrerago adieraziko den moduan eta baita enkantetzailearen izena ere.

1. KARTAZALA: PROPOSAMEN EKONOMIKOA:

Azken klausulan zehaztutako ereduari egokituko zaio eta aurkezteko ondorengoa idatzi behar da kartazalaren kanpoaldean: **“Lizartzako udal-plangintzako Arau Subsidiarioak berrikusteko agiriaren idazketari buruzko aholkularitza-kontratua esleitzeko lehiaketan parte hartzeko proposamen ekonomikoa”**.

Enkantetzaile bakoitzak proposamen bakarra aurkeztu ahal izango du. Bestalde, ezingo du behin-behineko beste inorekin elkartuta proposamenik aurkeztu, baldin eta proposamena banaka aurkeztu badu edota behin-behineko izaeraz beste norbaitekin elkartuta ere aurkeztu badu.

2. KARTAZALA: AGIRIAK:

Kanpoaldean ondorengoa idatziko da: **Lizartzako udal-plangintzako Arau Subsidiarioak berrikusteko agiriaren idazketari buruzko aholkularitza-kontratua esleitzeko lehiaketarako agiri orokorrak**”; ondoko agiriak bilduko dira bertan:

1. Enpresaburuaren nortasuna eta, hala dagokionean, proposamenaren sinatzailearen ordezkariak egiaztatuko duten ondorengo agiriak:

- Pertsona fisikoak edo banakako enpresaburuak direnean, enkantetzailearen Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia, administrazioko ordezkari publikoak konpultsatua edo, enpresaburua pertsona juridikoa denean, Merkataritzako Erregistroan erregistratutako Merkataritza Sozietatearen Eraketarako Eskritura.
- Beste norbaiten izenean jokatzeko duenean, dagokion ahalordea.

Zenbait enpresa behin-behineko izaeraz elkartuta aurkezten bada enkantera, enpresa bakoitzak bere nortasuna eta gaitasuna egiaztatu behar du, proposamenak sinatzen dituzten enpresaburuaren izenak eta egoerak adieraziz eta enpresa bakoitzaren partaidetza zehaztuz; halaber, kontratuak irauten duen bitartean Administrazioaren aurrean enpresa horien guztien ordezkari izango den pertsona edo erakundea izendatuko da.

- Enkantetzailearen zinpeko aitortzea, Herri Administrazioen Kontratuen Legeko 20. artikuluan kontratatzeke debekuzko jotzen den egoerarik ez duela adieraziz.
- Kaudimen teknikoak eta gaitasuna egiaztatzen duten ondorengo agiriak aurkeztu behar dira:

Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa egiaztatuko duen finantza-erakundearen toxstena edo, bestela, arrisku profesionalen ondoriozko kalte-ordainen aseguruak.

- Enpresaburuaren, enpresako zuzendaritzako langileen eta, bereziki, kontratua aurrera eramateaz arduratuko diren langileen titulazio akademikoak eta profesionalak.

Azken bost urteetan egindako zerbitzu edo lan nagusien zerrenda, lan horien ezaugarriak zehaztuz eta kontratuaren xede den antzeko lanetan izandako esperientzia azpimarratuz bereziki, hirigintzaren esparruko lanetan hain zuzen (garapen-plangintza eta plangintza orokorra).

- Talde teknikoaren curriculum.

3. KARTAZALA: “MEMORIA TEKNIKOA”

1) Proposamena azalduko duen memoria.

Enkantetzaileak proiektuan garatu nahi duen planteamendua zehaztasunez azaldu eta justifikatuko du, bai lanaren agiri, atal edo fase desberdinen ezaugarri eta edukiei dagokienez bai eta horiek garatzeko programari dagokionez ere.

2) Talde Teknikoa.

Kontratuaren xede diren alderdi edo funtzioak garatuko dituen talde edo langile teknikoen ezaugarriak zehaztuko ditu eta proiektuaren arduradun tekniko gisa jardungo duen profesionalaren edo profesionalen izenak adieraziko dira.

Lana garatzeko materialaren, instalazioen eta baliabideen aitortpena ere aurkeztuko da.

12.- KONTRATAZIO-MAHAIA

Kontratazio-mahaia ondorengoek osatuko dute:

Lehendakaria: Udaleko alkatea edo horren ordezkaria.

Mahaikideak: Udaleko Zinegotzi bat.

Teknikari Aholkulari bat.

Idazkaria: Udaleko idazkaria edo horren ordezkaria.

13.- AGIRI OROKORREN KALIFIKAZIOA

Proposamenak aurkezteko epea amaitu ondoren, kontratazio-mahaiak enkantetzaileek 2. eta 3. kartazaletan aurkeztutako agiri orokorrak kalifikatuko ditu ekitaldi pribatuan.

Kontratazio-mahaiak, aurkeztutako agirietan akats materialak daudela ikusten badu, egoki baderitzo, gehienez ere 3 eguneko epea eman ahal izango du enkantetzaileak akats horiek konpontzeko.

Agiriek akats larriak edo zuzendu ezinezko gabezia materialak izango balituzte, proposamena baztertu egingo litzateke.

14.- ESLEIPENA EGITEKO OINARRIZKO IRIZPIDEAK

Lehiaketa esleitzeko oinarri izango diren irizpide objektiboak ondorengoak izango dira, garrantziaren arabera ordenan:

- Memoria teknikoa: 40 puntu arte
- Ekipo eta Talde Teknikoa: 30 puntu arte
- Eskaintza ekonomikoa: 15 puntu arte
- Esperientzia antzeko lanetan: 10 puntu
- Epeak: 5 puntu

15.- PROPOSAMENAK IREKITZEA

Kontratazio-mahaiak, proposamen ekonomikoak ireki eta hurrengo asteleheneko 13,00tan Udalbatza Aretoan egindako ekitaldi publikoan, enkantetzaileek 2.eta 3. kartazaletan aurkeztutako agiri orokorren kalifikazioaren emaitzaren berri emango du eta lehiaketatik kanpo geratu diren enkantetzaileak eta horiek kanpo uzteko arrazoiak adieraziko ditu; bertaratuek nahi beste oharpen egin ahal izango dituzte eta guztiak aktan jasoko dira.

Ondoren, kontratazio-mahaiko idazkariak 1. kartazala irekiko du, egindako proposamen ekonomikoak irakurriko ditu eta aktarekin eta egoki deritzon proposamenarekin batera esleipena egiteko ardura izango duen kontratazio-organoari aurkeztuko dizkio.

16.- BEHIN BETIKO ESLEIPENA

Kontratazio-organoak, kontratazio-amahaiaren agiriak jaso eta dagozkion txosten teknikoak bideratu ondoren, proposamen ekonomikoak ireki ondorengo hiru hilabeteen barnean erabakia jakinaraziko du eta proposamen onuragarrienari esleituko dio kontratua, horretarako balio ekonomikoaz gain beste alderdi batzuk ere kontuan hartuz, edo, bestela, lehiaket ahutsik uzteko aukera ere izango du.

17.- ESLEIPENDUNAK AURKEZTU BEHARREKO AGIRI OSAGARRIAK

Behin esleipena egin ondoren eta horetarako ezarritako epearen barnean, proposatutako esleipendunak ondorengo agiri orijinalak edo agiri horien fotokopia konpultsatuak aurkeztu behar ditu:

- Identifikaizo Fiskaleko Kodea.
- Ekonomi Jardueren gaineko Zergan ekitaldi horretan eta adierazitako helbide fiskalean alta emanda dagoela adierazten duen egiaztagiria.
- Gizarte-segurantzarekin dituen betebeharrak betetzen dituela egiaztatzen duen agiria, inskripzio edo alta-agiria nahiz bere zerbitzura dituen langileak bertan izena emana dutela eta kuotak ordaintzen dituztela adierazten duten agiriak; bestalde, gizarte-segurantzarekin izan dezakeen edozein zorren berri ere eman behar du.
- Behin betiko bermearen gordailua.
- Teknikari arduradunen titulazioen eta/edo dagokien elkargoko kide direla adierazten duten egiaztagiriak.

18.- KONTRATUA FORMALIZATZEA

Administrazioak eta kontratuaren jasotzaileak esleipenaren berri eman eta biharamunetik hasita 30 eguneko epea izango dute administrazio-agiri bidez aholkularitza eta laguntzako esleipen-kontratua formalizatzeko, eta nahikoa titulu izango da hori edozein erregistrotara jotzeko. Hala ere, kontratuaren jasotzaileak hala nahi badu, administrazio-kontratu hori Eskritura Publiko bidez gauza daiteke eta hura arduratuko da gastuez.

Kontratuaren jasotzaileak, kontratuaz gain, administrazio-baldintza partikularren plegua ere sinatu behar du, hori kontratuari atxikita ez badago.

19.- ESLEIPENDUNAK ORDAINDU BEHARREKO GASTUAK

Esleipendunak ondorengo gastuak ordaindu behar ditu:

- a) Lehiaketan jarri beharreko iragarkiak eta kontratua prestatzeko eta formalizatzeko gastuak.
- b) Kontratuaren ondorioz estatuan, udalean nahiz eskualdean ordaindu beharreko zergak.
- c) Balio Erantsiaren gaineko Zerga ordaindu behar du eta esleipenaren prezioaren barnean sartuko da.
- d) Esleipen-kontratuaren formalizazio publikoak sortuko dituen gastuak.

20.- PREZIOEN BERRIKUSPENA

Kontratu honetan ez da prezioak berrikustea onartuko.

21.- KONTRATUAREN EBAZPENA

Herri Administrazioen Kontratuen Legeko 112. eta 214. artikuluetan ezarritakoaren arabera iraungi ahal izango da kontratua.

22.- ARAUBIDE JURIDIKOA

Honako baldintza-oleguan berariaz aurreikusi ez diren gaiei dagokionez, Herri Administrazioen Kontratuen Legean, Estatuko Kontratuen Legean, apirilaren 2ko 7/85 Legean eta apirilaren 18ko 781/86 Errege Dekretu Legegilean ezarritakoaren arabera jokatu da.

23.- ESKUMENA

Kontratuen interpretazioari, aldaketei, ebazpenei eta ondorioei buruzko auziak kontratazio-organoak ebatziko ditu eta organo horrek emandako ebazpenen administrazio-bidea agortuko dute eta administrazioarekiko auzi-bidea irekiko dute, jurisdikzio horretako Legearen arabera.

24.- PROPOSAMEN-EREDUA

..... jaunak/andreak (NAN zenbakia:, Non:, Noiz:), adinez nagusia denak, (e)n (herria) helbidean bizi denak, eta telefono-zenbakia duenak, bere izenean (edo, horretarako dagokion ahalordea erakutsiz, pertsona honen ordeztu: jauna/andrea,(e)n (herria), helbidean bizi dena), eta prozedura irekiaren bidez, Lizartzako Udal-Plangintzako Arau Subsidiarioak berrikusteko agiriaren idazketari buruzko aholkularitza-kontratua esleitzeko lehiaketaren berri izanik, kontratua ondorengo baldintzetan garatzeko konpromisoa hartu du:

- Prezioa:
- Gauzatzeko epea

.....(e)n, 2003ko (r)en(e)an.

Prozedura Irekiaren bidez, Lizartzako Udal-Plangintzako Arau Subsidiarioen berrikuspenaren idazketa esleitzeko lehiaketa arautzen duen baldintza partikularren plegua, aholkularitza eta laguntzako kontratuko

oinarrizko lege gisa erabileko den Baldintza Plegua, aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

6.- 2003 URTEKO AURREKONTUAREN KREDITU ALDAKETA

Lizartzako Udal honen 2003ko Aurrekontuaren barnean Kreditu-Gaikuntzen erregimenaren bidez izapidetzen den Kreditu-Aldaketarako espedientearen berri eman ondoren.

Idazkari-Kontuhartzaileak jaulkitako txostena irakurri ondoren, zeinak adierazten baitu aipatutako espedientea aplikagarria zaion indarreko araudiari egokitzen zaiola eta, hortaz, bere aldeko txostena ematen baitu.

Onespena proposamena formulatzen duen Ogasun Batzordeak emandako aldeko irizpena irakurririk.

ERABAKI DA:

- 1.- Kreditu-Gaikuntzen erregimenaren bidez egin beharreko Kreditu-Aldaketarako espedientea onestea, 176.964,69 eurotako zenbatekoaz, espedientearekin batera jasotako egoera-orriskari ageri den kontzeptu eta partiden xehekapen berarekin.
- 2.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irrimo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da onetsitako Kreditu-Aldaketa Fondoaren Kontuhartzailetza Zerbitzuek Kontabilitatean berehalako ondorioekin isla dezaten.

7.- LIZARTZA, LEABURU-TXARAMA eta OREXAKO IDAZKARITZA-KONTUHARTZAILETZA ELKARTEAREN DESEGITEA

LIZARTZAKO UDALBATZAREN ERABAKI PROPOSAMENA LIZARTZA, LEABURU ETA OREXAKO UDALEK OSATZEN DUTEN UDAL ELKARKETA DESEGITEKO.

IKUSITA, Lizartzako Udaleko Alkatetzak aurkeztutako Memoria;

GERTATUZ, Aipatutako Memoriatik argi eta garbi ondorioztatzen dela Lizartza, Orexa eta Leaburu-Txaramak osatzen duten Udalen elkarketa desegitea beharrezkoa dela Idazkaritza mantentzeko;

GERTATUZ, 1985etik Lizartza eta Orexako Idazkariak ehunetik ehuneko dedikazio eskusiboz egiten duela lan bi udalerrri horietan, eta beste udalerrri bat gehitzea zuzenean kaltetuko dituela udalerrri horietako biztanleak;

GERTATUZ, Egungo egoera konpontzeko beharrezkoa dela Elkarketa desegitea, Lizartza eta Orexako Udaletan soilik mantenduz;

KONTUAN HARTUZ, Toki Administrazioako Gaikuntza Nazionaleko Funtzionarioen Lan Postuen Hornidurari buruzko uztailaren 29ko 1732/1994 Errege Dekretuaren (189 zenbakia duen abuztuaren 9ko BOE) 3. artikulua ezarritakoa;

KONTUAN HARTUZ, Toki erakundearen araubide juridikoa ezartzen duen 781/1986 Errege Dekretuko 161. artikulua ezarritakoa;

Aho batez, honakoa erabakitzeke proposatu zaio LIZARTZAKO UDALBATZARI:

Lehena: Alkatetza-Lehendaritzak aurkeztutako memoria aintzat hartzea eta onartzea.

Bigarrena: Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Funtzio Publikoko Saileko Toki Administrazioen eta Erakunde Harremanetarako Zuzendariari Lizartza, Leaburu eta Orexa 3. mailako Idazkaritzarako osatzen duten Elkarketa desegiteko prozedura hasteko eskatzea; bai eta elkarketa hori Lizartza eta Orexako Udaletarako mantentzea soilik.

Hirugarrena: Erabaki hau Leaburu eta Orexako Udalei zein Gipuzkoako Foru Aldundiari jakinaraztea, honekin batera doazen Memoria eta dokumentazioarekin batera.

Lizartza, Leaburu-Txarama eta Orexako Udalek osatzen duten Udal Elkarketa desegiteko aurkeztu den proposamena, aho batez onartzea erabaki da.

8.- ALKATETZAREN DEKRETUAK

AMAIA ARRATE GOIKOETXEA

Bere etxeko Komuna berritu, komun eta sukaldeko leihoak aldatu eta berogailu hornikuntza egiteko baimena eman zaio, baldintza hauekin:

Jarri nahi diren leiho berriak, fatxadako beste leihoen modukoak izan beharko dira.

Behin obrak hasi ondoren, hauek ez badira burutzen emandako informazioaren arabera eta fatxadan, egitura edo instalakuntza nagusietan eragina badute, arkitekto batek sinaturiko eta Elkargo Ofizialak ikusonetsitako proiektua eskatuko da obra baimentzeko.

Lizentzi hau, hirugarren baten jabetza eskubidea errespetatu eta horren kalterik gabe ematen da.

FELIPE ARRESEIGOR LERTXUNDI

Bere etxeko bainugelaren berrikuntza egiteko baimena eman zaio, baldintza hauekin:

Behin obrak hasi ondoren, hauek ez badira burutzen emandako informazioaren arabera eta fatxadan, egitura edo instalakuntza nagusietan

eragina badute, arkitekto batek sinaturiko eta Elkargo Ofizialak ikusonetsitako proiektua eskatuko da obra baimentzeko.

Lizentzi hau, hirugarren baten jabetza eskubidea errespetatu eta horren kalterik gabe ematen da.

AITOR, ANDER eta ARANTXA MENDIZABAL

Bi familiko etxebizitza egiteko baimena ematen da, baldintza hauekin:

- 1.- Lizentzia indarrean sartzeko, Gauzatze Egitasmoa aurkeztuko da, Arkitekto Elkargoak ikusonetsi ondoren.
- 2.- Erregistroan egindako Lur eremuen Zatikaezineko ziurtagiria aurkeztuko da Udalean.
- 3.- Estalkira, irisgarritasuna ahalbideratzen duen irekidura egin behar dela jakinarazten da oinarrizko egitasmoaren gainean.
- 4.- Obrari dagozkion udal-tasak ordainduko dira.
- 5.- Eraikuntzako ordenantzen arabera egingo da obra.
- 6.- Lizartzako Laguntzako Arau Subsidiarioetako agindu orokorrak betetzera, baldintzatzea.

BALDINTZA BEREZIAK

Sarbidea egin behar deneko errepidearen baldintzak kontutan harturik, Etxearen itxitura, errepidearekiko gutxienez 1,20 m. baztertuko da (zabalkuntzak ahalbideratzeko) eta itxitura eta errepidearen artean espaloia egingo da.

Etxeari lotuko zaizkion lurak "Indivisibilidad de fincas" deritzan errejistroko agiriaren bitartez justifikatu beharko dira.

BALDINTZA OROKORRAK

- 1.- Ebazpen hau, hirugarren baten jabetza errespetatu eta horren kalterik gabe luzatzen da.
- 2.- Jabetza-eskubidea kontuan hartu gabe ematen da baimena. Obra egin bitartean inor kaltetuz gero, baimenduna ezingo da baimenaz baliatu eragindako kalteen erantzukizun zibila alderatzeko edo bere gain ez hartzeko.
- 3.- Indarrean dauden lege eta ordenantzen araberako segurtasun-neurriak bete behar dira.
- 4.- Baimentzen diren obren inguruan, komunikazio hari, ur sare edo beste inolako zerbitzu publiko instalakuntzarik egongo balitz, obren berri eman beharko da, Zerbitzu Publikoari kalteek aurrezaintzeko, obregatik, kalterik gertatuko balitz, ukitutako hirigintz elementuek berregin beharko dira, tokatzen diren gastuak ordainduaz.
- 5.- Ebazpen hau luzatzeak, ez du ematen inolaz ere, IGOKA behar duten aktibitate edo establezimenduen irekiera baimenik.
- 6.- Obrak, aurkeztu eta onartutako ejekuzio proiektuaren arabera burutuko dira, eta hauek hasi aurretik, obrako Zuzendaritza Teknikoaren izendapena egin beharko da. Obren luzapena, 8 hilabetetan irizten da.

Inolako aldaketarik sartu behar balitz, aurreko adostasun beharko du.
- 7.- Obrak bukatu ondoren eraikuntzaren lehen erabilpena aurkeztu behar da honako dokumentazioarekin:

- Obra amaieraren ziurtagiria, obraren benetazko kostoa adierazita.
- Fatxaden argazkia 13x18 neurrian atzetik arkitektoak sinatuta.
- Kokapen planoak hiri zerbitzuen hartuneak adierazita.
- Obra berri aitopenenaren eskrituraren kopia xumea.
- Iberdrolaren buletina.
- Hiri zerbitzetan alta berria (U-4 orria).

FRANCISCA GARAIKOETXEA GIBELALDE

Bere etxean bainugelaren konponketa egiteko baimena eman zaio, baldintza hauekin:

Behin obrak hasi ondoren, hauek ez badira burutzen emandako informazioaren arabera eta fatxadan, egitura edo instalakuntza nagusietan eragina badute, arkitekto batek sinaturiko eta Elkargo Ofizialak ikusonetsitako proiektua eskatuko da obra baimentzeko.

Lizentzi hau, hirugarren baten jabetza eskubidea errespetatu eta horren kalterik gabe ematen da.

MELCHOR GARRALDA EGIBURU

Opoteko presainguruko herribidetik, Ur tuberia lurperatua pasatzeko baimena eman zaio, baldintza hauekin:

- Irekitzen den guztia, berriz ere behar bezala utziko da, orain duen akabera berdinarekin eta urratutako guztia behar bezala berdinduaz.

- Errepidearen parteren bat ikuitu behar balitz, Aldundiko baimena eskuratu beharko da.
- Obratako eremua seinalizatuko da eta langaz babestuko da.

Lizentzi hau, hirugarren baten jabetza eskubidea errespetatu eta horren kalterik gabe ematen da.

JOSE LASA ETXEBERRIA

Udaleko Zerbitzu Teknikoek eginiko Ikuskaritza agiria eta Udaleko Idazkaritzak egindako txostenak ikusi ondoren.

KONTUTAN HARTUAZ.- Ekainaren 26ko 1/1992 Errege-Dekretu Legegilearen bidez onartutako Lurzoruaren Erregimena eta Hiri-Antolamenduari buruzko Testu Bateratuaren 248-1 art. ikusi ondoren eta baita ekainaren 23ko 2187/78 Errege-Dekretuz onartutako Hirigintza-Arauen Erregelamenduko 29. artikulua ere, Errekarte inguruan, Txaborrentzako Txabola eraikitze obrak, BAIMENIK GABE egiten ari direla.

HONAKO HAU ERABAKI DU:

- 1.- JOSE LASA ETXEBERRIA Jaunak, Errekarte Inguruan, Txakurrentzako Txabolan egiten ari diren eraikuntza-obrak berehala etetea.
- 2.- Lurzoruaren Legearen Testu Bateratuaren 248. artikuluan aipatutako espedientearen izapideketa.

Eta hitzegiteko beste gairik ez dagoenez, Alkateak, Batzarra amaitutzat eman du, gaueko hamar t'erdia direnean.